

Baratza

JOXE AGIRRE “JOXE ALKIZA”

(Ibarra, 1933)

Urte luzez Alkizako parrokoa izana, idazle eta itzultzaile lanean Joxe Alkiza goitizenez ezagunagoa, 1965ean antzeztu zen Donostian berak euskaraturiko Ibsenen *Andere etxea* antzerki lana. *Zeruko Argia* aldizkarian astero idatzi zuen nekazaritzaz, eta hain zuzen alor horretan lan izugarria egin zuen gure baserritarrentzat ganadu nahiz baratzari buruzko oinarritzko prestakuntza materialak euskaraz eratzten. Antologiarako aukeratu dugun atala hain zuzen, “Baserria-Baratza” bildumakoa da. Lan hau gaztelaniaz idatzi zuen Martin Manchok, baina euskaraz bakarrik eman zen argitara 1977-1978 ikasturtean Servicio de Extensión Agraria, Zabalegi Nekazari Eskola eta Lurgintzaren eskutik.

Erroa eta burua jaten zaien barazkiak

JOXE AGIRRE "JOXE ALKIZA"

Mahairako erremolatxa

Mahairako erremolatxa, burua jateko egiten da. Ez da sail haundirik jartzen hemengo baratzetan. Errez etortzen dan landarea da, eta dirua eman dezake.

1. Muetak

Erabiltzen diran mueta guztiak, edo ia denak, *Plato* izenekoak dira, mueta *luzeak* ez baitira ia ezagutu ere egiten. Plato izeneko hoietakoak dira:

Plato de Egipto: Goiz etortzen dan mueta hau urte guztian egin diteke: Buru borobilla du, hosto gorri illuna, mantxa berde batzuekin, ez du hostaje haundia. Aukera bat baiño gehiago badaude salgai. Burua edo erroa gorria da, eta zeharo heldu baiño lehen, erein eta hiru hillabete ezkerro ere bai, atera eta jan diteke.

Plato de Detroit: Hau ere goztiarra da, burua borobilla eta gorria. Ez du hostaje haundia. Mamia gozo-gozoa du.

Erremolaxaren hazia, 4-6 haziale dituan *harilgoa* baita, beharrezko izaten da gero bakantzea. Gaur badaude salgai *monogermen* muetak, ernemuin bakarreko haziak, eta hoiekin, ez da ia bakandu beharrik izaten. Frantziatik ekarritako muetak dira: *Explorer*, *Spinel* eta *Bola de fuego*.

2. Giroa eta lurra

Giro heze eta epelak ditu gogoko, hotz-beroan aldaketa haundirik izaten ez danak. Ekainean eta uztailean erregariatutako aldi batzuk komeni zaizkio eta ondoren egin dezala bero.

Lurrari dagokionez, azanarioarentzat bezelakoak dira onak, gai organikoz, ez urri, ez gaiñezka, eta urak ondo korritu dezala. Lurrak gai organiko gehiegi badauka, burua kolorez ajatu egiten da eta zaporez ez dira hain gozo eta fiñak.

3. Ongarriak

Ez da lehen egon dan lekuan beste hiru edo lau urtetan erein behar. Ongarri asko behar du. Simaurra aurreko kosetxaldian emana izan behar du eta hori ezin bada, simaur zaharra eta zeharo desegiña bota beharko zaio.

PH.aren neurriak 5'2-6'5 bitartean egon behar baitu, ez du lurra karetu beharrik izaten; bestalde, karetzak bihotzeko gaitza sor dezaioke oso errez (baita boro eskasiak ere).

Honela ongarriritu behar litzake:

Simaur oso zaharra	300	kilo areako
Sulfato amonico	2,5	kilo areako
Superfosfato de cal	5	kilo areako
Sulfato de potasa	2	kilo areako
Azufre	1	kilo areako
Amonitro (bi alditan)	1,5	kilo areako

4. Erein eta aldaketa

Gipuzkoan gehienetan izango dan tokian ereiten da; baiña horrek ez du esan nahi, aurrena hazitegian erein eta gero sotoan aldatu ezin danik.

Hazitegian erein eta gero aldatzea, ia hobe dala, esan diteke, ekainetik abuztura kosetxa biltzeko; nekez goratzen eta loratzen diran muetak erabilli behar dira holakoetan: *Detroit, Lora, Globo, Nobel*, eta abar.

Izan ere martxoan eta apirillean, lurrak oraindik hotz eta putzu daude askotan, eta ezin da artean soroan hazirik erein.

Aldatu, hazia erein eta handik hillabete terdira, egiten da. Aldatzerakoan, landareari erroaren muturra, ez baitu doblatuta gelditu behar, moztu egiten zaio, eta hostoen puntak ere bai, hirutatik bat edo. Landare haundiegiak baztertu egiten dira.

Hazia alde zuzenetik erne erazi diteke 12 orduz ur-epeletan edukiz. Kanpo librean, tenperatura 10°tik gora igotzen danetik aurrera ereiten da. Azkarregi erein eta gero hotzak jotzen baditu, landareok gero loratu egiten dira azkar.

Erein edo aldatu 40-50 zm. tarteko errenkadetan egiten da, eta lurra txarra bada tarte haundiagoa uzten da errenkadatik errenkadara.

5. Ondorengo lanak

Landaretxoak 3-4 orri dituztenean, bakandu egiten dira, zulo bakoitzean bat bakarrik utziz, eta orduantxe da, lehenengo aldiz amonitroa botatzeko garaia; hurrena handik 15-20 egunera botatzen zaio bigarren aldiz.

Behin erremolatxak burua egiten hasten diranean, jorratzea edo lurra ikuitzea, kalterako du, zaiñak eten egingo litzaizkioketa.

6. Belarrilkariak, izurriteak, gaitzak

Azelgari botatzen zaizkion herbizidak berak, esaten dute, mahaiko erremolatxari emateko, baiña hontan ez daukagu eskarmenturik. Hemen sail txikiak egiten dira, eta hoietan eskuz ateratzen zaio belarra, bakantzeko garaian eta bigarren aldiz amonitroa botatzerakoan.

GAITZAK: Azelgarekin ari giñenean, gaitz bat aipatu genuen: *cercospora*, landare hau ere jotzen du; seiñaleak eta tratamenduak orduan esanak berberak dira.

Bibotzeko deritzaion beste gaitz batek jotzen du askotan. Erdiko ki-muak harildu egiten zaizkio, buruaren barrua hutsa geratzen da eta gero usteldu. Gaitz hau lurrak *boro* gutxiegi edo kare gehiegi edukitzetik dator. Sailla karetu berria ez bada, *solubor* bota behar zaio eta lur hortan hurrena beste zerbait jartzeko boroa eskas duela kontuan izan.

Batzuetan *rhizoctonia*, *esclerotinia* edo holakoren bat duelako ere useltzen zaizkio erroak. Lehen ere aipatu ditugu gaitz hauek.

IZURRITEAK: Erremolatxaren *zorriek* egin dezaioke gaitz batez ere landare jaio berriei. *Lindano* eta *Sevin*-ekin tratamenduak egiñez galtzen dira.

Erremolatxaren sitsak egin dezaioke kalte, sedazko hariz hostoak biltzen baitizkio. *Erremolatxaren euliak* ere bai, mantxa arre-illun batzuk sortzen dizkio; edota *beldar* hostojaleak, eta abar. Hauek denak, azaltzen diran zoriz, *Diazinon*-ez tratamendu bat eginda, galtzen dira.

Errabanito - Lutxarbia

Ez da garrantzi haundiko barazkia. Otsail-martxotik hasi eta azarora arte egiten da. Erroa edo zaiña da entsaladan jateko saltzen zaiona.

Ez du aparteko zailtasunik lutxarbia ekartzeak, askotan beste landare batzuen artean ereiten da baratzen eta beste haziren batekin hazitegian. Baita beste landareak atera ondoren hazitegian geratzen dan lurrean ere, egiten dute sarri.

1. Muetak

Lutxarbi txikia besterik ez da egiten esateko. Erroak borobillak edo luzeak dituzte, eta kolorez gorriak, gorri-zuriak edo arrosa-zuriak.

Mueta asko, izan, badira, baiña Gipuzkoan gehienetan erabiltzen diranak hauexek dira:

Lutxarbi gorri borobilla: Azkar etortzen dan mueta da hau. Burua globo tankerakoa du, 2-4 zm.ko diametroa luzeran eta zabaleran. Mamia trinkoa du. Urte guztian, edozein garaitan erein ditekete, aipatuko ditugun beste muetak bezelaxe.

Luxexka gorri mutur zuria: 25-28 egunerako egiten du burua, luxebiribilla; 5-9 zm. luzeran eta 2-3 zm. lodian. Hemen asko egiten dan mueta da hau.

Luxexka gorria: Aurrekoaren antzekoa; baiña erro guztia gorri duena.

Gorri borobil mutur zuria: Beharbada hauxe da gehien erabiltzen dan mueta, ez baita pasatzen, eta hola, aldiko batzuk bakarrik bilduz, jardun ditekete sailla bukatu arte. Tamaiñaz eta tankeraz, gorri borobillaren modukoa da.

Neguan lutxarbirik izaten ez dan ezkerro, beharbada, zenbaiti komeniko zaio, berotegian sail txikia egitea. 10°-18°ra bitarteko tenperatura litzake egokia, eta hotzari gogor egiten dioten muetak aukeratzea komeni da: GOLO, SERRA, SAXERRE. Lanketa hontan, ordea, ez dago eskarmenturik Gipuzkoan, Frantzian, diotenez, 40-60 egun behar omen dira kosetxa biltzen hasteko.

2. Giroa, lurra, ongarriak

Udan ospelean, edo itzalean luzaro egoten dan lekuan, egin behar da; udaberrian eta udazkenean, berriz, alderantziz, eguteraan edo eguzkiak luzaro jotzen duen lekuan. Halere, esan behar da edozein girotan eta edozein lurretan etortzen dala ondo. Hori bai, nahiago ditu lur biguiñak, gai organikoz eta simaur zaharrez ondo hornituak (hazitegi izandako lurra esate baterako).

Ez da errez ze ongarri eman behar zaion esaten; beste landare batzuen artean egiten baita gehienean. Hazitegi izandako lurrean ereiten bada, nitrogenoa eman behar zaio, hostoak mardul hazi ditezten. Beste zerbaiten aldamenean sail bat ereiten bada, aurreko kosetxaldiko ongarriketa aprobeztatuz, honoko ongarri hauk eman ditezke:

Amonitro	2 kilo areako
Superfosfato	3 kilo areako
Sulfato de potasa	2 kilo areako

3. Landuketa

Purran ereiten da, metroko 5 gramo hazi. Hobe litzake 15-20 zm.ko tartea utziz errenkadetan ereingoa balitz. Hazia erein ondoren lurra zapaldu

eta zanpa-zanpa egiten da. Jaio ondoren, bakandu eta belar txarrak ateratzen zaizkio.

Udan, garatu ez dedin, eta buruak xamurrak izan ditezten, ura eman behar zaio. Gaitzen aldetik, nekerik haundiena ALTICAS diralako xomorroak galtzen izan liteke, hostoak zulatzen baitituzte. LINDANO hautsez galtzen dira. Erregariatzea ere, xomorro hauei eusteko ona izaten da, orduan gutxiago atakutzen duteta. Baiña behin izurritea azaldu ezkerro, tratamendua egitea beharrezkoa da eta galtzen ditu zomorro hoik.

Kosetxa, hazia erein eta handik 3-4 astera biltzen da.

Alkatxofa

Urtean baiño urtean alkatxofa gehiago jaten dan arren, landare hau ez da ia ezagutzen Gipuzkoan eta izan liteke hemengo giroa eta lurra ez zaizkiolako atsegin eta egoki.

Landare bizia da, bizpahiru urtez irauten du. Ebro eta Segura ibaien erriberak, Balentzia, Andaluzia, Madrid eta Segobia dira gehiena sortzen dan tokiak.

1. Giroa eta lurra

Ez ditu nahi lur *bezeak* eta *hotzak*. Lur sanoak, sakonak, preskoak eta emankorrak behar ditu, asko zupatzen duen landarea baita.

Gurea bezelako giro bustietan, eguneroko eta luzaroko euriteei beldur die, batez ere negukoei; hezetasun gehiegiak, zaiñetako gaitzak azkartzen eta ugaltzen baitizkio eta azkenik gaitzok landarea hondatu egiten dute.

Hori dalata alkatxofa lantzeko ohiturarik ez da zabaldu Gipuzkoan, halere, zenbait aldetan eta zenbait sailletan ekarri diteke, lur sanoa izan ezkerro eta lurrari *bizkarruneak* atereaz egin ezkerro.

2. Ongarriak

Ongarri asko behar du, eta gaiñera, lurrean bizpahiru urtez egoten baita, simaurtze eta ongarritzeak arreta haundiz egin behar zaizkio. Honela ongarritu behar litzake:

Simaur zaharra	500 kilo areako
Sulfato amonico	6 kilo areako
Superfosfato de cal	6 kilo areako
Sulfato de potasa	5 kilo areako

3. Aldaketa eta landuketa

Hazitik datorren landarea ez da beti bere gurasoa bezelakoa izaten eta horregatik, lehengoan altxuma edo zaiñen aldaxka bidez, sortzen dira landare berriak. Altxuma hoik, zain pusketa batekin ateratzen zaizkio lehengo ondoari; eta zaiñetako aldaxka hoik, berriz, lehengo ondoa, ihartu baiño lehen ipurditik atera, eta zaiñetako zarpa zatikatuz egiten dira.

Lurralde lehorretan udazkenean aldatu ohi da; baiña lurralde bustietan hobe da udaberrian aldatzea. Horregatik, zaiñetako aldaxkak udazkenean aldatuta jarri eta udaberrirako, aldatzeko altxumak, sortu ditzakezu. Bestela landareak, aldatzeko prest, erosi ditezke muintegietatik edota alkatxofa asko egiten dan tokietatik. Tudelatik esate baterako.

Lurrari bizkarruneak atera eta gain hortan aldatzen dira 80x110 inguru luze-zabalean ematen zaiela. Landare bat edo bi jarri ditezke zuloko, baiña zaiñetik sortutako aldaxkak badira, altxuma bat bakarra sartzen da zuloko. Garrantzi haundia du, aldatu ondoren erregariatzeak eta lurra belar txarretatik garbi edukitzeak.

Udazkenean, burua eman duten adarrak edo kimuak ipurditik mozten dira eta hosto haundien muturrak ere moztu, hirutatik bi edo, bertan utziz. Neguko hotzetatik babesteko, bete egiten da 25-30 zm. baiña beti ere landareari bihotza tapatu gabe.

Hotz haundien arriskua danean, -4 eta -5^okoak, sail guztia orbelez edo lastoz estali egiten da. Baiña horrela tapatzea arrisku haundiko gauza da eguraldi bustiak jotzen badu, zaiñak usteltzen hasiko liraketa. Horrelakoe-tan hobe da ez tapatzea.

Martxoan, bete ziran landareei lurra kendu eta simaur zaharra eta amonitroa zabaltzen da. Apirillean, landareei hondoa garbitu, eta bakoitzari altxuma pare bat kentzen zaizkio, indartsuenak. Gaiñerakoak zaiñen muturrak pixka bat moztu eta beste sail batean aldatzen dira.

Lanok, alkatxofak hiru urte irauten badute ere, urtero egin behar dira; horrela urtero sail berria jartzen da adin desberdiñeko alkatxofak izateko.

Txanpiñoia

Hemen gure artean txanpiñoia jaten da, gastatzen da, ta ez gutxi, baiña halere, ez da bertan ia batere egiten. Txanpiñoiak sortzera jarriko litzakeen baserritarrak, pentsa dezake, errez salduko duela eta prezio onean gaiñera, orain kanpotik ekartzen baitute, Frantziatik batipat.

Leku itxian egiten da txanpiñoia: zaldi simaurraren gaiñean, edo *compost* izena duen simaur artifizialaren gaiñean, ontoaren mizelio puskak ereiten dira eta hazten diranean hoietxek dira txanpiñoiak, hots, jateko onak dira ontoak.

1. Compost-a

Zaldi-simaurrari, lastoa, gariarena edo beste alekiren batena, nahastu, pillatu eta irakin eraziz egiten da konposta.

Compost artifiziala, egin diteke lastoari zenbait kimikazko produktu nahastuz ere, baiña hemen ez gera hasiko zein diran esaten, ez baitituzu salgai topatuko eta neurri txikian gutxiago. Dana dala, txanpiñoiak sortzeko erak erakusten dituen edozein liburu teknikok jartzen ditu nahasketa hoik egiteko formulak.

2. Zaldi-simaurrak nolako izan behar duen

Txanpiñoiak sortzeko erabiliko dan zaldi-simaurrea, abere sanoak egiña izan behar du eta ikulluan daudenak. 2 tonelada simaurrek 5 bat metro kubiko izan behar dituzte gutxi gora behera. Zaldi-simaurrak lasto gutxi baleuka, gari lastoa gehiagotzen zaio tamaiña hortako pilla egin arteraiño. Lasto gehiegi baleuka, berriz, 20-50 kilo sulfato amoniko nahasten zaizkio, edota zaldi-simaurre tonelada bakoitzeko 60-80 kilo oillazirin.

Bestalde, tonelada bat edo biko simaurre pilla behar da gutxienez ere, irakiten duenean behar hainbateko beroa iristeko. Pilla txikiagotan ezin da behar hainbat bero sortu.

3. Simaurrari nola irakin erazi

1) Hasteko simaurre behar dan tokian hustu orduko, atxurtu egiten da, eta behar badu lastoa gehiagotzen zaio, edota esan degun abonoa. Ondoren pilla egiten da, gehiegi estutu gabe, eta simaurre lehorra badago erregariatu pixka bat.

Simaurre toneladako kilo 1 Malathion, 5%koa, eta beste kilo 1 Lindano, 1%koa, nahasten zaizkio urtuta. Simaurre berriegi danean hautsetan bota ditezke. Zomorrohilkari hauk kapaka nahasten zaizkio pilla egiterakoan.

Irakiteko simaurrepillak ondoan bi metro terdi edo hiru izan behar ditu zabalean, eta metro terdi edo bi alturan. Pilla egin eta handik 5-7 egunera, simaurrearen barruko tenperatura 60-75° tara igotzen da eta lurruna eta amoniako dariola jartzen da.

2) Une hortan azpikoz gaiñera jira behar da pilla, lekuz aldatzean gaiñeko kapak azpian jarritz.

Pilla berria egiterakoan, ondo xehetu behar dira simaurre puztilla guztiak, eta lehor-uneak busti.

3) Lanketa hau beste 3-4 aldiz egiten da, astean behin eta horrela 4-5 asteren buruan, *compost-a* egiña geratzen da.

Compost on bat kolorez arrea da, ez du amoniako usairik, dena berdin xehe-xehea. Lastoa errez apurtzen zaio eta ondo xehetua egon ohi da. Eskuetan hartu eta estutzen badezu, ez dizu eskuan grasarik utziko, hezeta-suna bai, eta eskutik uzten dezunean, berehala sakabanatzen dira apurrak.

4. Lekua eta sistimak

Txanpiñoiak egiteko lekua, itxia izan behar du, eta 21-24^oko beroari eusteko modukoa. Lehenengo bolara batean bero hori behar baita eta gero, ontoak jaiotzen hasten diranetik aurrera 15^okoa.

Aideko umedadea 70%etik gorakoa izan behar du. Bentilazioa, elektrikako argia eta erregariatzeko ura ere behar dira.

Txanpiñoia, bizkarrunetan edota bandejetan erein diteke:

1) *Bizkarrunetan*: Konposta 40 zm.ko zabaleroan eta beste 40ko alturan jartzen da, nahi dan hainbesteko luzerarekin. Bi bizkarrunen artean 35 cm.ko ibilpidea uzten da. Aideberritzerakoan, haizeak nundik nora korrituko duen, hara begira egon behar dute konposta illara hoiek ere.

2) *Bandejak*: Industri moduan egiten danean, hau da gehienetan erabiltzen dan sistema, simaur gutxiago behar baitu, konposta bandejetan jarri, pasteurizatu, eta txanpiñoiak ereiteko lekura eramaten da.

5. Ereitea

Txanpiñoiaren mizelioa ogiaren tankerakoa saltzen da. Intxaur ale baten tamaiñako puskak egiten dira eta alde guztietara 15 zm.ko tartea utziz puska hoik sartzten dira simaurpillaren bizkarrunetan. Bazterretan 10 zm. uztea nahikoa da.

Mizelio puskak konpostean zm. 1 edo 2 sartzeta nahikoa da eta simaur horrekin berorrekin tapatzen dira.

Txanpiñoi zuriaren, gorrixtaaren edo horixtaaren mizelioa erabil diteke; merkatuari gogokoen zaiona.

6. Estali eta ondorengo lanak

Lurrean sartu eta handik aste betera, mizelio hori mugitu da. Orduantxe estali egiten dira simaurren bizkarruneak lur xehez edo turba fiñez 3-4 zm.ko kapa ezartzen zaiolarik. Estalgarri hau xuloak irekitzeko eta ura zupatu dezan ezartzen zaio. PH.aren neurritz, neutroa izan behar du, eta izurrite eta gaitzetatik garbi egon.

Lekuari, estaltzeko garai hori iritxi arte, 22^oko beroan eusten zaio. Eguenean pare bat aldiz, aideberritu egiten da, anhidrido karbonikoak aldegin

dezan. Erregariatuz, konpostari, lehortu gabe eusten zaio eta, giroko hezetasuna 70%etik jeisten bada, lokalaren paretak zipriztintzen dira urez.

Estalgarria ipiñiz gero, beroa 18^otara eratxi behar da eta aideberritzeko kontu haundia eduki, anhidrido karbonikoa pillatu ez dedin. Lehenengo ontoak jaiotzen diranetik aurrera beroari 15^otan eutsi behar zaio.

Beti izan behar da erregariatzeko kontua, konposta lehortu ez dedin. Ez da busti behar blai egiteraiño; 2-3 egunez behin, eta astean behin ere, erregariatzea nahikoa du. Honela, bizkarruneak luzeran duen metro bakoitzeko 3-4 kilo txanpiñoi ateratzea ez da zailla izango.

Ematez ahitu danean, konposta atera eta soroak ongarritzeko erabiltzen da. Lokala eta tresnak deskutsatu eta leku berean berriz txanpiñoiketan hasteko 3-4 hillabete itxogin behar da. Bitartean beste holamoduko leku batean egiten dira.

Iturburua:

MANCHO URIZ, Martín, *Baserría. Baratza. 6. liburukia*, Zabalegi Nekazari Eskola. Donostiako Aurrezki Kutxa, Donostia, 1977.